

% 12 handiagoa izango da ingurumenaren aldeko eta aldaketa klimatikoaren aurkako Aldundiaren aurrekontua

Klima Araba 2050 klima ekintzarako estrategiak, eraginkortasun energetikorako laguntzak edo Life Urban Klima proiektua dira Ingurumen eta Hirigintza Sailak 2020an bultzatuko dituen estrategietako zenbait

Hondakinak prebenitu eta kudeatzeko aurrekontua % 24,5 handitu da eta 5,17 milioi eurokoa da jada

Josean Galerak zuzentzen duen sailak 6 milioi euro inbertituko ditu uraren saneamendu, arazketa eta hornidura sistema hobetzeko

Gasteiz, 2019ko azaroaren 21a. Arabako Foru Aldundiak ingurumena kontserbatzen lagundu nahi du aktiboki eta, bereziki, aldaketa klimatikoaren aurka borrokatu nahi du, eta, hori dela eta, 2020ko aurrekontu proiektuan % 12 areagotu du helburu horretarako diru kopurua. Hori jakinarazi du gaur goizean Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatu Josean Galerak, Arabako Batzar Nagusietan egindako agerraldian.

Besteak beste, nabarmendu beharra dago Aldundiak 647.440 euro bideratuko dituela datorren urtean energia jasangarri eta berriztagarrietara, eta aldaketa klimatikoa arindu eta hartara egokitzeko neurrietara. Horrela, Klima Araba 2050 klima ekintzarako strategiari helduko dio, zeinaren helburua baita Arabako energia eredia eraldatzeko jarduketa esparru bat finkatzea karbono isurtzeak murrizteko eta arreta berezia jartzea mugikortasunari eta hiri berroneratzeari.

Horrez gain, Aldundia Life Urban Klima proiektuaren buru izango da eta 1,5 milioi euro (245.390 euro 2020an) inbertituko ditu, hirietan eta hiri inguruetan aldaketa klimatikoaren aurkako ekintzak gauzatzeko.



Prentsa Oharra Nota de Prensa

Xede berarekin, Arabako herrietan energia eraginkor eta jasangarriak bultzatzeko laguntza lerroa izango da hurrengo urtean ere, eta 139.000 euroko zenbatekoa izango du. Horrez gain, Ingurumen Sailak 110.000 euro erabiliko ditu foru erakundearen eraikinetan energia garbiak jartzeko.

Hondakinak: kudeaketa hobea, kontzientziario handiagoa

Hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko aurrekontua ere handitu du foru erakundeak eta datorren urtean 5,17 milioi euro inbertituko ditu, alegia, iaz baino % 24,5 gehiago.

Epigrafe horretan aurreikusitako jarduketan artean, konpostaje instalazio bat eta hondakin handientzako beste bat eraikitze proiektua nabarmendu behar da, bai eta landa eremuan bilketa gune gehiago eraikitze proiektuak ere. Horrez gain, herritarrak hondakin gutxiago sor ditzaten kontzientziazeko eta birziklatze tasak handitzeko partida ere nabarmen handitu du Aldundiak (60.000).

Azpiegitura hidraulikoetan egingo ere inbertsioa handiak egingo ditu, lurraldeko herrietan uraren saneamendu, arazketa eta hornidura sistema hobetzeko, eta 6 milioi euro izango dira datorren urtean horretarako. Saneamenduari dagokionez, Olabarritik Iruña Okarako hodi biltzailea amaituko dute (270.320 euro) eta Villamaderneko hodi biltzaile berria eraikiko (271.496 euro). Hornidurari dagokionez, Agurain eta Araia urez hornitzen dituen Zirauntza ibaiaren hoditeria berrituko dute (740.000 euro) eta Sobrongo sistemako tarte bat berritzen hasiko dira (1,4 milioi). Gainera, Larrazubiko eta Fontechako depositu berria eraikitzen hasiko dira (1,1 milioi euro) eta Dulantzikoa egiten amaituko dute (423.780 euro).

Arabako Mendialdeko meatze paisaia

Amaitzeko, Josean Galerak nabarmendu du bere sailak 867.150 euro bideratuko dituela Arabako Mendialdeko meatze eremuen balioa azpimarratzeko, eta horietatik 169.950 euro 2020ko aurrekontuan sartu dituzte jada.